


BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Larrialdietarako makilen eta haren osagarrien salmenta web orrialdearen bidez bada ere, bezeroek **autozerbitzua eta laguntza pertsonala** jasoko dute web orrialdearen, sare sozialen, telefonoaren eta hitzaldien bidez.

→ **Autozerbitzua izango dute web-orrialde bertatik:** Haiek nahi izandako produktua erosteko aukera izango dute; kasu honetan, makila **nahi duten kolorean** aukera dezakete. Gainera, **erosteko modua** ere aukeratuko dute (erabili nahi duten txartela aukera dezakete, baita jasotzean ordaintzeko ere). Bertan **makilen informazioa** ere aurkituko dute; produktuaren tamaina, pisua, dituen erabilera guztiak...



→ **Zerbitzu pertsonala jasoko dute web-orrialdean ere:** Produktuari buruz edo zer ez ulertzekotan, zalantzak izatekotan edo informazio gehiago jakin nahi izatekotan **gurekin komunikatu** ahal izango dira eta guk haien galdera guztiak erantzungo ditugu **web orrialdearen bidez**. LERIA MAKILAK **bezeroekin kontaktuan** egongo da beti, haien **fideltasuna** bereganatzeko. Gainera, haien erosketara etxera **noiz helduko zaien** komunikatuko diegu, mugikorraren mezu bat bidaliz edo web-orrialdearen bitartez, **produktuaren egoera jarraitzeko** aukera emanez. Bezeroak produktuarekin pozik ez egotekotan, berriz, gure **laguntza pertsonala** jasoko dute, eta **produktua bueltatzeko** edo **aldatzeko aukera** izango dute. Produktua bueltatzekotan, bezeroek **produktuaren diru guztia jasoko dute** berriz.



→ **Zerbitzu pertsonala telefonoaren bidez ere jaso ahal dute:** publizitate-karteletan, hitzaldietan, sare-sozialetan eta web-orrialdean gure **telefono zenbakia** aurkituko dute; beraz, nahi dutena galde dezakete, bezeroak **gehiago informa** ditzakegu edo **zalantzak argitu** ahal dizkiegu momentuan.



→ **Zerbitzu pertsonala hitzaldietan ere jaso dezakete:** Hitzaldietan makilei buruzko informazio guztia emango diegu; gainera, bertan, momentuan, fisikoki eta eskudirutan **makilak erosteko aukera** izango dute. Hori hala izanda,

bezeroek **deskontu bat lortuko** dute. Horrela bezeroak errazago bereganatu ahal ditugu, eta bezero gehiago izan ditzakegu ere.

→ **Sare sozialen bidez ere, bezeroek zerbitzu pertsonala jasoko dute:**

Bertan produktuari buruz informazioa aurkituko dute, **makilen argazkiak** igoko ditugu, baita **publizitatea** egingo dugu ere. Sare sozialen bidez, gure erosle guztien artean **zozketak** prestatuko ditugu. Zozketetan, linternak, bateriak... lortzeko aukera izango dute. Parte hartzeko, haien **makilen tiketa** erakustea daukate, guk ziurtatzeko makila benetan erosi dutela.



→ **Bezeroek mezuen bidez ere gure laguntza guztia jasoko dute:** makilei buruzko informazioa, zozketei buruzko informazioa... **etxera** ailegatuko zaie **gutun** moduan.

Gainera, **komunitateak** sortzeko aukera ere egon daiteke, bezeroek produktua erostean, **produktuari buruz iritzia** emateko aukera izango dutelako.

→ Produktua heltzerakoan **haien iritzia** eman ahal dute, eta produktuari **puntuazio bat jarri** ahal diote. Horrela, beste bezero batzuk besteen iritziak ikusi ahal dituzte. **Produktuaren argazkiak** igotzeko aukera izango dute ere. Horrela, **bezero gehiago lortu** ahal ditugu.



Bezeroek **eskaintzak jasoko** dituzte ere, horrela bezeroak poztuko ditugu eta erosle gehiago lortuko ote ditugu.

→ **Gure bezero batek beste bezero bat lortzekotan, opari bat** emango diegu, horrela bezero gehiago lortuko ditugu. Adibidez: linterna edo uhal bat bakoitzarentzat.

→ **Bezero batek bi makila erosteagatik beste bateria osagarria** oparituko diogu.

→ Lehen azaldu dugunez, **zozketak** egongo dira gure sare sozialetan eta bertan **hainbat opari** lortu ahal dituzte ere.

→ **Hitzaldietan produktua erosteagatik, %5 deskontua** jasoko dute makiletan, prezioa 274.99 eurotik, 261.25 eurotara pasatuko da.